

**LIBURUAK**

# Euskal Literatura eta Soziologia (eta II)

Azkeneko boladan garbizelekeriaren alde —neurritsu samar zenean ere— ipiritu "baserritarra" bakarrik salatu izana litekeana duk, eta hori errazago ulertuko nikek nik neronek, nahiz-eta hor ere halako gure zenbaiten ste atzera gelditutako edo fraktasaturiko edozeinena baino baserritarra go ez ikusi. (Atzera gelditzeak edo fraktasaturik ez edukitzeak adierazi nahi, eta gutxiago baserritarrazko). Hizkuntza-soziologiak ba zendukak garbizelekeria espikatzeak bere teoria. Hi ez hau konkentitzen nonbait, eta heure gisa ibiliz de xente aldaratu haiz. Hortarako eskubide osoa duk, noski. Bakarrik, hire azterketak nire uestez robinsonada bat irten duela; ilun aurkitzen diat, eta —batez ere— ez zioat klasikoan aldean bentajarik batere ikusten. Baina nire abuzur okerrena eta, derdikidanez, bion diferentzien iturburua, metodologiari bertan zegok. Oso oker ez bago, izan ere, hire azterketaren azpian klase eskema zegok (liburuok azken kontsiderazioek ere horixe zarakustek, ni esandako gutxiaren hitzez hitz konforme bago ere), eta denbora batez "errealismo sobietar" izenekoa egin ze zakean tankera berdin-berdinean egon ere. Literatur kritika soziologiakoan metodo hori gaidituta zegela ueste nian (Sobiet Batasunean bertan ere jadanik bai); nire sorpresa galantez hirearekin besterik aurkitu arte, Euskal Herrirako batik bat. Uste dudanez, ordea, literatura soziologia modernoa oroarkagiago egoera historikoen edo prozesu legeen kategoriarerakin aritu ohi duk, klase eskema halek ideologikoegi eta artifizialegi agiri zirean-eta.

Garbizelekeriaren barne egitura arrazionalistaz ez diat ueste bada haundirik kabi, dithekeanik. Frantziako "Pleladako" poetak hasi —Ronsard, Du Bellay— ta Malherbe, "frantsesaren erreformatzalea" zehar, garbizeleak etengabeki beti arrazioren izenean mintzatu dituk. Arriandagaren "erasiek Port Royalgo delairen oihartzuna ziruditek: Grammaire générale et raisonnée. Arago, gutzi hau Descartes eta Pascalen giroan desarroilatatu zela jakiteari askitsu zerizkioat. Boileauk, desarroilo hau korroautz, formula hauxe diktatu zituk: aimes donc la raison (maifka arrazoimena). Berdin-berdin —Alemanian. Garbizelekeriaren koinzidentzia historikoz risorgimento nazionalerakin ere, itxaro badanez, jadanik ez likek dudarik egon behar. Deux dialogues du nouveau langage Francois italianizean ere egile R. Estienne, frantsesaren garbitze abiatzailertzat eduki litekeanek, estaldurarik gabe aitortu dik, eta harrezkeroko gutziak gauda bere nabari zaiek: "jaloux de l'honneur de sa nation" sentitzen denak

garbizele jokatari behar bide du. Satire Ménippée (1594) burgesia frantsesaren asmo berdin bilduma antzean zetorrek, hemen espalnoaren eta latineraren kontra. Eta mugimendu garbizele absolutismoarekin batera desarrolatuko duk, biak gailendu arte. Prozesuok antzekoak dituk nonahi. Euskal garbizelekeriaren bi puntuk, halare, lehengoan bista kolepaen behintzat, arrazionalismoaren tesiari kontrajente eta hire baserritar zientziaren edo nekazalgu sustainerari faboritzen diola zirudik; baserrizelekeriak eta "zokokeriek".

Prozesu legeez nire uesteko inportanteena, ta kritikan, ez espesiziaz, aritzeak mugatzen ninduenaz gora ere mintzatu natzaiakoan, bi oharrekin bukaturko diat nire kritika.

**BI OHAR, BATERA**

Har ditzagun biak batera. Literaturan baserri-maitte, naturalez maitte bezalaxe, Aro Moderno merkataria agertu duk, ez Erdi Aro nekazarria. aturalezaren naturalezaren baldia ala itzuli dizkik gizonak begiak atzera naturalezara, baina naturalez "pentsatu" batera, ez espontaneora: oroit Ronsard, esaterako ta "artzain poesiaren" moda (Bergerles ugariak). Bakardadearen gaia ere "burlesko" burgeski sartu diate literatura frantsesean. Ta gutzi horietzek berak garbizele dituk. "Zokokeriek" edo dialektokeriek buruz garbizeleak zalantza balantzan agiri dituk: Malherbek italianismoak hain gorrotatzen dizkik bere aurrekoek italianismoen kontra hain zuzen ugiritutako dialektokeriak (frantsesera Kaskoitiatik sartuak gehienbat). Ez zegok ahazterik, nolana ere, hain zuzen "zokokerien" etsaigoak ekarri duela koindeiraen eguztuz den garbizelekeri klase-formalista bakarra: burgesiak eta Hizkuntza Akademiak eraikitako Salon frantsesa. Eta ezagu duk Gortek eta Salon paristarrek bezain garbi ta txukun mintzatzeoko modari zor zaiola gaurko frantses "garbia", jatorriz herriko ez baino klasista. Alemanian, Agnipide zentralik gabe, eta horregatixe burgesia banaturerakin, klase zerikusit gutziagorekin bilakaturko duk literatura hizkuntza garaieraren formazioa, ta beharrez, hizkelgi edo dialektoen hartukizun milla aldiz gehiagorekin. Leibniz, J. J. Bodmer, J. J. Breitinger, etc., bururik argienak "zokokerien" eta arkaismoen zabalkunde eta berbizkundaren alde lehiatu dituk. Eta garbizeleak, Alemanian ere, baserrizele dituk, zokokerien aurkakoak apartatu gabe; beren izen ordez landare eta artzain izenezko sunidimoeekin firmatzea moda bihur-

teraino izan ere. Eta hau dena kartesianismoaren eta barrokoaren artean zegok, benetako baserri bizitza oso urritu beraz. Arrazionalismoaren azpian, eta azkenean nari gain hartzeraino egon ere, bizixiki dagoen ipiritu erromantiko horixe erantsi-ohi zio soziologiak, nik dakidanaz, garbizelekeria, beronen baserrizelekeriazko nahiz zokokeriazko adasekin. Kritiko: gisa ari naizenez, honen etorburea azaldu ordez, pantu biok nekazalgoarekin hartuemanik ez dutela erakusten salatuko nauek.

Arana Goirik Euskal Herriaren eta euskeraren indibiduaizoa bilatzeko irizki ziharduan (or. 51) eta "kriterio berriaren arauaz, euskeraren muina gordetzen duten zokokeriek eta la inon ezagutzen ez diren esatera bitxik neurtzen dute idazlearen jatorrasuna" (or. 53). Nik jokabide horren azpian kontradizio bat ezkututzen zela salatzen nian, eta hik ukatuz erantzun. A. Hauser literatura soziologok, in introducción a la historia del arte: "El romanticismo manifiesta una actitud ambivalente frente al individualismo. Ninguna generación anterior quiso ser tan personal, tan inconfundible e incomparable, etc." (or. 157/158): aranisimoak Euskal Herriarentzat bilatzen duen gauza bera. Bitxikeriz jositako ta "iraganerik gabeko euskera bat" egozten diek hik arantza hire uestez baserritarrei. Hauserek: "Ningún escritor (erromantiko) se atrevía a escribir una frase sin preguntarse antes si era lo bastante sorprendente: inaudita, revolucionaria" (526); ad casum; nahiko garbi, jator, etc. Arantstek berak baino lehengoeko literaturaren balioa ukatu ziaten: Boileauk horixe bera literatura frantses zahar gutziarekin. Garbizelekeria, izan ere, indibiduaizoa grina amorratua huan futsuan, eta politika erromantiko batetatik ez bestetatik zetorrea, politika ere buruhauste horrekintze enplegatutrik zebilelarik. Gero, zenbait-eta kaskarrago idazlea eta garbizele radikalago, bere nortasunik ezal nortasun kolektiboarekin, berdintzeko. Idazlea hobe ta neke gehiago garbizelekeriarekin moldatzeko.

Nik hire kontra ueste dudanez, eta garbizeleak bere halaxe esan ala ez (obrei begira juzgatzekotan) logizista garbizeleak ez zeduketeen baserriko euskera "hauta zitekeen bakartzat" eta gutxiago "euskal izatearen esentziatza" (53). Honetan ere beren arrazionalismo-erromantizismoen tankerari jarraitzen ziotean. Beren ikusmira kalelar hutea huan, eta asmatu egiten ziaten beren baserriko euskera, poesia baserri bitziza bukolioa bezalaxe: Urbanitate ta literatura urbanoaren konzeptuak berak ere aldi garbizele ta aldi berean baserrizelearen emaitzak dituk, Guez de Balzac Salon-hizkuntzaren azterkariarenak

alegia (1846). "El romanticismo despojo al arte (berdin, euskera) del pueblo (ta hemen Antorrek herri laboraria adierazi nahi dik) de sus rasgos concretos, y a fin de subrayar tanto más su supueste carácter universal y prototípico, lo convirtió en un concepto vago" (Hauser). Bitxikeriak eta zokokeriak bilatzea, Hauseren esanean, "arte urbanoaren" ezagarri duk, ez baseria eta ez artea eta ez hizkuntza herrikoia tutik ulertu duten kalelarrak bakarrik empeinatzen dituk girileria horiekin herriko eta jator agertzen, Hauserek Arte del pueblo y arte popular kapituloan oharartazi bezala: "El hecho de que la mayoría de las canciones del pueblo no estén compuestas en dialecto, sino en el idioma de las clases ilustradas, muestra claramente hasta qué punto el pueblo está libre en este aspecto de toda vanidad y arrogancia. Las canciones dialectales proceden, en su mayoría de compositores profesionales, que creen tener que descender hasta el pueblo, mientras que el pueblo mismo, cuando compone, no se muestra 'natural', sino que se endomina tanto anímica como idiomáticamente" (381). Mutatis mutandis, lehenago ta oraingo gure "jator asmatzaleei" aplikatu litekeana iruditzen zaidak.

Ez zekiat, hik baserritarren zein burutazio edukiko duan, baserritar zientziarena batez ere. Nire uestez, dena den, garbizelearen baserrizelekeria kalelarr ta hiritarrak duk: baserritarra, baina hirira begira. Baserritarra "zientifiko" hi-

tzegitara sartzen denean, inoiz baserritarrik hortan ikusi baduk oharituko huanex, garbizele ez beste gutzia duk. Goroako Indianoa ta Mexolo lekuko. Kalelarrak garbizele ikusten ditutenean bakarrik garbizelearen duk baserritarra, gauz ikasitoketako umei begira esaterako. Hiritarren erakapen hori nabarmena duk; ikus Kirikino bera, baina baita herrietako berrie-maleak ere ta Kresalatik Garaora dagoen tartea.

Etsi-etsian, Arriandaga, Olabide eta antzuek garbizelekeria baserri zaleatasunarekin baino seminarioan ikasitako eskolastikarekin espikatzeak ere errazago irudituko litzaidakek... Klerikalismoarekin hori ere, ta kito!

Bukatzeok: oso penagarri izango litzaidakek nire kritika honek norbaiti hire liburuaren balioa gutxiyeko bade emango balio. Nik neuk oso goratik estimatuko ez banu ez nintzean idatzen jarriko, eta gutxiago hainbeste paper zikintzen. Baina gutxiyeko gutxiyekin (hi ez, ba zekiat hori) hamaika jende haserretzeko ta ez gutxi aspertzeko arriskua hartuko nian neure gain. Baina gutxiago oraindik, posible baldin baduk, nik inola arrazirik eman nahi ez didean batzuen arazoia ematen didean itxurari azaltzeko arriskua. Liburuarek estimatzen dudalako, neure neurrian ekarri posible bat egiteko obligazioa sentitu naizelako hire eta irakurlearen aurrean, egin diat kritika huan.

Jose Azurmendi

MUEBLES

## URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Vitoria)




### arístegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,  
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR,  
GARBITOKI ETA TURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:  
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 411490

DONOSTIA



# ONEX

Plaza Diputación, 2 - Urrutzikifia: 55 7 54

Kafetera makiñetan dizdira berri bat sortu nuan etxea

## Errenderi

(Gipuzkoa)

---

ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA ELECTRODOMESTICOS RAILITE

**240000000** BURNI - SALGAIK ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK LEGEZKO

DONOSTIA Urbleta, 25 Urbleta, 27 - Isabel II, 2 Aldacenea, 4

ZABALTXAILLEA

Urrutzikifiak:  
44309 ta 426787